

Zer dakigu haurren minbiziaz?

Minbizia hitza entzuteak izutu egiten gaitu, askotan, eta haur batek minbizia duela entzuten dugunean, zer esanik ez, baina, askok uste dutenaren aurka, haurren minbiziak sendatzeko aukera handiak omen ditu



Sekuentzia honetan, haurren minbiziari buruz arituko gara, eta gai horren bueltan, jarduera hauek egingo dituzu:

- * Gaiari buruzko aurrezagutzak zein diren ikusteko erantzun galderei.
- * Erreportajea entzunda, esandakoari buruz, galderen erantzun zuzena aukeratu.
- * Hiztegia eta zenbait egiturari erreparatu: definizioari dagokion hitza aukeratu eta esaldiak euskaratu, erantzun zuzena aukeratu.

Haurren minbizia gaitzitzea posible da

Entzungo duzun erreportajea, Donostiako Ospitaleko pediatra-onkologoa den Nagorek haurren minbiziari buruz hainbat xehetasun emango dizkigu. Baina zer dakigu haurren minbiziaz? Entzun aurretik, irakur itzazu beheko baieztapenak eta esan zure ustez egia edo gezur diren. Hurrengo ariketan erreportaje osoa entzun ahalko duzu.

1. Gaur egun, haurren minbizi gehienak leuzemiak eta linfomak izaten dira.

- Egia Gezurra

2. Haurren eta helduen minbiziak jatorriari dagokionez, oso antzekoak dira.

- Egia Gezurra

3. Haurren kasuan, minbiziaren jatorri genetikoak ez du apenas pisurik izaten.

- Egia Gezurra

4. Zenbat eta ikerketa genetiko gehiago egin, orduan eta tratamendu egokiagoak aplikatu daitezke haurren minbiziari aurre egiteko.

- Egia Gezurra

Haurren minbizia: erantzun zuzena aukeratu



https://labur.eus/5tfs2

Lehen egin dituzun aurreikuspenetan asmatu al duzu? Entzun orain erreportajea, eta zure ulermena proban jartzeko, aukeratu galdera bakoitzaren erantzun zuzena.

Minbizia sendatzeaz gain, ume horientzat oso garrantzitsua izaten da...

- ...tratamendua hasi bezain pronto, botikekin ahaztu eta beraien ohiko bizitza egin ahal izatea.
- ...helduarora iristen direnean, minbiziak eragin dizkieten kalte fisiko eta psikikoekin erabat ahaztea.
- ...bizitza normala eraman dezaten lortzea, bizi-kalitate onarekin.

Zer dio esatariak minbiziak jotako haurrek sendatzeko duten aukerei buruz?

- Normalean, % 20tik gora sendatu egiten direla.
- Helduen aldean, haurrei gehiago kostatzen zaiela gaitza gaitzitzea.
- Minbizia duten haurren % 80 sendatzen dela, normalean.

Zer esaten da haurrei aplikatzen zaizkien tratamenduei buruz?

- Normalean, helduei aplikatzen zaizkien berberak izaten direla.
- Ez daukatela zerikusirik helduek jasotako tratamenduekin, haurrekin askoz gogorragoak erabiltzen baitira.
- Helduekin erabiltzen diren tratamenduen antzekoak direla, baina, berezitasun batzuekin.

Haurren minbiziari aurre egiteko erabiltzen diren kimioterapieei buruz zer ez du esan Nagore izeneko pediatrak?

- Helduen tratamenduen aldean, seguruagoak izaten direla, kimioterapiak haurraren duen eragina nabarmenagoa delako.
- Ematen zaizkien botikak leunagoak izaten direla, tratamenduaren eragina hain nabarmena ez izateko.
- Tratamendua denbora laburragoan jartzen zaiela, ahal dela, egun berean etxera joateko moduan.

Gaitz honi aurre egiteko zer eskatzen dute medikuek? Eta zein arrazoi ematen dituzte?

- Ikerketa gehiago egin daitezela, gero eta ume gehiago dagoelako minbiziak jota.
- Diru-laguntza gehiago ematea familiei, askotan bietako batek lana utzi egin behar izaten baitu.
- Ikerketa gehiago egin daitezela, umeengan minbizi kasu gutxiago egoteaz gain, errazago izaten delako umeen minbizi sendatzea.

Hiztegia lantzen

Oraingoan hiztegiari erreparatuko diozu. Behean, zenbait hitzen baliokideak edota definizioak dituzu. Aurki itzazu erreportajearen definizio horiei dagozkien hitzak eta idatz itzazu hutsuneetan, ematen zaizkizun erantzunetatik egokiena aukeratuta.

Oharra: Lehendabizi, komeni zaizu erreportajea arretaz irakurtzea, eta ondoren, azpimarratu itzazu ideia eta hitz klabeak. Horrek testua ulertzen lagunduko dizu.

HAURREN MINBIZIA

Adin pediatrikoan ematen den minbiziaren barruan, zelulen hazkunde edo ugaltze ezohikoa ezaugarri nagusi duten eta haurrei eragiten dieten gaixotasunak sartzen dira. Minbizi haur eta nerabeei maiz erasaten ez dien gaixotasuna da, eta hala ere, haurren heriotzen bigarren kausa da, istripuen ondoren. Gaixotasun baten eraginez hiltzen diren haur eta nerabeen artean, aldiz, minbizi da kausa nagusia.

Minbizi gizartean garrantzia handia duen gaixotasuna da. Haur eta nerabeen minbiziaren ezaugarriak eta helduen minbiziarenak ez dira berdinak, eta horregatik beharrezkoa da gaixotasun honen alderdi guztiak ezagutzea helburu duten ikerketak bultzatzea.

Minbizi edozein adinetan agertu daiteke, eta zenbait kasutan, haurra jaio aurretik ere detektatu daiteke. Gure inguruan gaixotasun baten eraginez hiltzen diren haur eta nerabeen artean, minbizi da kausa nagusia. Sortzetiko malformazioa izaten da urtebetetik beherako haurren heriotzen arrazoi nagusia. Ume nagusiagoetan, aldiz, istripuak. Bada, minbizi bigarren lekuan dago.

Umeen minbiziari ezin zaio aurre hartu, eta oraindik ez dago argi zergatik ematen den. Helduengan posible da prebentzio-lana egitea, zenbait ohitura (hala nola tabakoa erretzea edo alkohola edatea) minbizi izateko arrisku handiagoarekin lotu baitira. Haurren artean, baina, prebentzioak ez dauka lekurik.

Haurren eta helduen minbizi motak desberdinak izaten dira, eta horregatik behar-beharrezkoa da tumore pediatrikoak ardatz izango dituen ikerketa-lerroa. Haur eta nerabeak hazkuntza eta garapen fasean daude, eta horren ondorioz, minbiziari aurre egiteko tratamenduek, hala nola kirurgiak, erradioterapiak edo kimioterapiak, eragin oso kaltegarriak izan ditzakete eta epe luzerako ondorio txarrak eragin. Haurren minbiziari aurre egiteko farmako berrien garapena oso eskasa da. Hartara, behar-beharrezkoa da ikerketa eta terapia berrien bilaketa bultzatzeko beste modu batzuk aurkitzea, pronostikoa hobetu eta sendatze-tasa handitzeko helburuarekin.

Gaixotasun larri honek umeengan, euren familiengan eta gizartean oro har daukan eragina oso handia da. Hortaz, ezinbestekoa da haur eta nerabeentzako arreta integralean aurrera egitea, eta bide horretan, osasun-arloko alderdiak zein gizarte eta hezkuntza-arlokoak zaintzea, gaixo horien garapen eta gizarteratze onena lortu ahal izateko. Minbiziari aurre egiteko nazioartean diren tratamendu onenak eskaintzen dituzten eta arreta psikologikoa eta soziala uztartzen duten unitate espezialetan jaso behar dute arreta haur eta nerabeek. Gaixotasunari aurre egin eta bizirik ateratzen diren umei bizi-kalitate onena bermatzeko lana da haurren minbiziaren ikerketako beste gako nagusietako bat.

Haur edo nerabe bati minbizi diagnostikatzen diotenean, familia osoak eta gizarteak kolpe emozional handia hartzen dute. Informazio ugari behar izango dute, eta mota honetako diagnostiko batek sortzen dituen arazo ugariari aurre egin behar izango diete.

Gaixotasunaren inguruko xehetasun guztiak ezagutzeko atxikitako dokumentuan sartu.

Eitb.com webgunetik hartua.

Zein da definizio bakoitzari dagokion hitza? Kontuan hartu erreportajea agertu behar duela.

1. Modu “anomaloan” ugaritzea.

- ugaltze atipikoa Ugaltze ezohikoa hazkunde ohikotik kanpoko

2. Gai edota arazo bati buruzko informazioa sakonago ezagutzeko egiten den azterketa.

- Lanketa Ikerketa behaketa

3. Jaiotzetik sortzen den deformazioa.

- Jaiotzetiko eraldaketa Sortzetiko malformazioa Jaiotzetiko deformazioa

4. Gertatu aurretik prebenitzea.

- Aurrea hartu Aurre egin Aurrean hartu

5. Gaztelaniazko “línea de investigación”.

- Ikerketa-lerroa Ikerketarentzako lerroa lerroa ikerketarako

Orain, hitz horiek erabiliz nola euskaratuko zenituzke honelako esaldiak? Aukeratu erantzun zuzena.

1. Para que podamos hacer frente al cáncer en los niños, es fundamental fomentar todo lo posible la investigación.

- Haurren minbiziaren aurrez aurre jartzeko funtsezkoa da ikerketa gero eta gehiago sustatzea.
 Haurren minbiziari aurre egin geniezaion, garrantzitsua liteke ikerketa ahal denik eta gehien sustatzea.
 Haurren minbiziari aurre egin ahal izateko, funtsezkoa da ikerketa ahal den gehien sustatzea.

2. Al parecer, la razón principal de la muerte en los niños enfermos de cáncer es la malformación genética.

- Ematen du minbizia duten haurren heriotzaren arrazoi nagusia sortzetikako malformazioa da.
 Arrazoi nagusia, ematen du, haurren heriotza gertatzeko sortzetiko malformazioa da.
 Antza denez, minbizia duten haurren heriotzaren arrazoi nagusia sortzetiko malformazioa da.

3. Debido a que las causas de la enfermedad son genéticas, aún no es posible prevenir el cáncer en los niños.

- Gaixotasunaren eragileak genetikoak izaten direnez, oraindik orain, ez da posible haurren minbiziari aurrea hartzea.
 Gaixotasunaren eragileak askotan genetikoak izanez geroztik, ez da posible haurren minbiziari aurrea hartzea.
 Gaixotasunaren arrazoiak genetikoak izaten direnez, dagoeneko, ezin zitekeen haurren minbiziari aurrea hartzea.

Erantzunak

Haurren minbizia gainditzea posible da

1. Gaur egun, haurren minbizi gehienak leuzemiak eta linfomak izaten dira.

Egia Gezurra

2. Haurren eta helduen minbiziak jatorriari dagokionez, oso antzekoak dira.

Egia Gezurra

3. Haurren kasuan, minbiziaren jatorri genetikoak ez du apenas pisurik izaten.

Egia Gezurra

4. Zenbat eta ikerketa genetiko gehiago egin, orduan eta tratamendu egokiagoak aplikatu daitezke haurren minbiziari aurre egiteko.

Egia Gezurra

Haurren minbizia

Minbizia sendatzeaz gain, ume horientzat oso garrantzitsua izaten da...

...bizitza normala eramanez dezaten lortzea, bizi-kalitate onarekin.

Zer dio esatariak minbiziak jotako haurrek sendatzeko duten aukerei buruz?

Minbizia duten haurren % 80 sendatzen dela, normalean.

Zer esaten da haurrei aplikatzen zaizkien tratamenduei buruz?

Helduekin erabiltzen diren tratamenduen antzekoak direla, baina, berezitasun batzuekin.

Haurren minbiziari aurre egiteko erabiltzen diren kimioterapieei buruz zer ez du esan Nagore izeneko pediatrik?

Ematen zaizkien botikak leunagoak izaten direla, tratamenduaren eragina hain nabarmena ez izateko.

Gaitz honi aurre egiteko zer eskatzen dute medikuek? Eta zein arrazoi ematen dituzte?

Ikerketa gehiago egin daitezela, umeengan minbizia kasu gutxiago egoteaz gain, errazago izaten delako umeen minbizia sendatzea.

Hiztegia

1. Modu "anormaloan" ugaritzea.

ugaltze atipikoa Ugaltze ezohikoa hazkunde ohikotik kanpokoa

2. Gai edota arazo bati buruzko informazioa sakonago ezagutzeko egiten den azterketa.

Lanketa Ikerketa behaketa

3. Jaiotzetik sortzen den deformazioa.

Jaiotzetiko eraldaketa Sortzetiko malformazioa Jaiotzetiko deformazioa

4. Gertatu aurretik prebenitzea.

Aurrea hartu Aurre egin Aurrean hartu

5. Gaztelaniazko "línea de investigación".

Ikerketa-lerroa Ikerketarentzako lerroa lerroa ikerketarako

1. Para que podamos hacer frente al cáncer en los niños, es fundamental fomentar todo lo posible la investigación.

Haurren minbiziari aurre egin ahal izateko, funtsezkoa da ikerketa ahal den gehien sustatzea.

2. Al parecer, la razón principal de la muerte en los niños enfermos de cáncer es la malformación genética.

Antza denez, minbizia duten haurren heriotzaren arrazoi nagusia sortzetiko malformazioa da.

3. Debido a que las causas de la enfermedad son genéticas, aún no es posible prevenir el cáncer en los niños.

Gaixotasunaren eragileak genetikoak izaten direnez, oraindik orain, ez da posible haurren minbiziari aurrea hartzea.

Transkripzioa

Esataria- Minbizia duten haurren eguna da gaurkoa . Aritzek badaki zer den minbizia pasa eta gaitzea eta berehala hitz egingo dugu hamazazpi urteko gaztearekin, baina bera agurtu aurretik bi medikuren laguntzarekin, haurren minbiziari buruzko datu batzuk bildu nahi genituzke, Arantza Artza.

Kazetaria- Haurren minbizirik gehienak leuzemiak eta linfomak izaten dira, eta hauei burmuineko tumorea gehituz gero, haurren minbizi kasuen ehuneko hirurogei osatzen dute. Haurren tumoreak eta helduenak ez dira, ezin dira konparatu. Haurren minbiziak jatorri genetikoa du gehien-gehienetan; halaxe adierazi digu Ainhoa Aizetak, bera pediatra da eta Nafarroako ospitaleko pediatra sailean lan egiten du, Javier Camino pediatra onkologoaren taldean.

Ainhoa- Haurretan desberdinak dira tumore hauek. Normalki enbrioietatik, enbrioi-garaian, gelditzen dira zelula batzuk ez direla gero normalki, arreta desberdin bat daukatela eta orduan zelula horietatik sortzen dira minbizi gehienak. Eta orduan, genetikak dauka hor pisu handia, ez?

Kazetaria- Horregatik da hain inportantea ikerketa-genetikoa egitea, informazio gehiago izateko eta tratamendu egokia jarri ahal izateko diagnostiko egokia egin ondoren.

Nagore- Ikerketari esker azken finean, ba gaixotasunak geroz eta hobeto ezagutzen dira eta orduan, ba posible da tratamenduak ere hobetzea, eta askotan lortzea bai alde batetik geroz eta ume gehiago sendatzea, baina ez hori bakarrik baita ere sendatzea bizi-kalitate onarekin. Ez dela bakarrik sendatzea, sendatu eta gero izugarritzko ba kontrako efektuekin geratzea edo arazoekin, ba azkenean lortu behar duguna ere da, ba ume horiek minbizia gaitzea eta gero gai izatea bizitza normal bat izateko inongo arazo fisiko gabe eta bueno, ba hori, eta azken finean ba ume normal bat bezala izatea eta heldu-garaian ba inongo arazorik ez izatea.

Arantza- Nagore Garcia de Andoin zen hori, Donostia Ospitaleko pediatra onkologoa . Ainhoa eta Nagoreekin saiatuko gara hurbiltzen minbizia duten haurren errealitate horretara. Gaur egun minbizia duten haurren ehuneko laurogei sendatu egiten da. Hor datu positibo samar bat.

Ainhoa- Globalki esan dezakegu ehunetik laurogei , ba gaitzen dutela gaixotasuna eta batez ere leuzemia eta linfoma eta giltzurrunetako tumoretan ikusten dira emaitza onenak. Burmuineko tumoreak, horiek zailak Ez daukate horrelako emaitza ona, baina ehunetik laurogei, ba, momentu honetan sendatu egiten dira.

Nagore- Osea, azkeneko ba 30 urtetan, 40 urtetan izugarri handitu da , lehen ez zen inondik inora portzentaje horietara iristen eta asko hobetu da eta konparatzen badugu helduen munduekin , ba helduen minbiziarekin, izugarritzko portzentaje onak dira, baina oraindik badago ehuneko hogeit bat, ba sendatzea lortzen ez duena, orduan ba bueno, jarraitu behar da pixka bat ba inbestigatzen, eta borrokan, azkenean portzentaje hori , ba ehuneko ehunera iristera ahal den neurrian behintzat.

Kazetaria- Tratamenduari dagokionez, helduei aplikatzen zaizkien antzerakoak dira baina haurrentzakoak baditu bere berezitasunak ere.

Nagore- Tratatzeko badaukagu kimioterapia alde batetik, gero erradioterapia bestetik, eta gero kirurgia behar dutenek ba lehendabizi edo beranduxeago ere egiten zaie. Orduan ba, ba hori ez dago beste gauza gehiago. Baina kimioterapia barruan pentsatzen badugu, hor oso ezberdinak dira tratamendu batzuk eta besteak ba, motak ere oso ezberdinak direlako. Eta gero pentsatu behar dugu haurretan, ba pixka bat, gehiago zaintzen dugu ze, ba efektu, behar ez diren efektuak ere haurretan, ba nabarmenagoak direlako, helduetan baino eta orduan erabiltzen diren kimioterapiak ba, beti ere seguruagoak izaten dira. Ba, tratamenduak hobetu ezagututa ba lortzen da ba igual denbora ba laburragoa jarri ahal izatea eta ba, behintzat etxera joan ahal izatea ahal den gehiena. Eta gu beti saiatzen gara, ba, tratamendu batek 8 ordu irauten badu, ba egun horretan bertan etxera bidali, nahiz eta bi egunetara berriro ospitalera etorri behar izan, baina behintzat umeek azken finean, asko eskertzen dute ondo egonda eta etxean egotea lotan ahalik eta denbora gehien eta ez ospitalean lotan.

Kazetaria- Eta zer gertatzen da honelako kasuetan? Haurrak etxetik ospitalera, ospitaletik etxera, gurasoek denbora asko eskaini behar izaten diotela haurrari, bai tratamendu garaian eta baita ingresaturik dagoenean ere. Horrek gurasoetako batek lana utzi beharra ere ekartzen du etxe batean baino gehiagotan, eta gaur egun laguntza ekonomiko oso gutxi dute. Eta hori da hain zuzen ere, aurten, gaurko eguna dela eta, egin duten eskarietako bat. Minbizia duten haurren gurasoek laguntza ekonomiko gehixeago eskertuko luketela alegia. Medikuek ere, ongi ezagutzen dute errealitate hori.

Nagore- Gurasok, askotan ba behintzat, bi gurasotako batek lana utzi behar izaten du. Batzuetan ba aukerak izaten dituzte bajak edukitzeko baina bueno beste asko, ba igual autonomoak direnak edo, askotan ezin izaten dute ba lanarekin jarraitu, eta lana utzi behar izaten dute.

Kazetaria- Gurasoek diru laguntza eta medikuek ikerketa gehiago eskatzen dute, ez baita medikuek eurek nahi adina ikerketa egiten alor honetan. Zergatik?

Nagore- Ba haurrak gehiago sendatzen direlako alde batetik eta kasu gutxiago direlako bestetik, helduak baino, eta orduan ikerketak ba badaukizu, ba, diru eta ba hori, behar handia daukalako.

-Bai